

Ezagutza eta bertsoa batuko ditu berriz ere Bertsozientziak Euskararen Astean

Abenduaren batean, Euskararen Astearen programaren barnean, Bertsozientziaren saio berria egingo da UPV/EHUren Bizkaia Aretoan.

Irati Diez Virto, Mikel Santesteban Insausti eta Josu Lopez Gazpio ikertzaileek landutako gaiei bertsoak jarriko dizkiete Miren Amuriza eta Andoni Egaña bertsolariek.

Bilbo, 2023ko azaroak 20. Itsasontzien aurkako orken erasoak, 2002an pandemia baten arriskuaz hitz egin zuen zientzialaria edo hizkuntzen edota emozioen arteko lotura bertsoetarako gai izango dira Euskararen Astearen harira antolatu den Bertsozientzia saioan.

[Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) "Jakinduriek mundua erreko dau" izenburupean antolatutako saioak zientzia eta bertsolaritza batuko ditu beste behin ere. Berriz ere hiru zientzialarik jorratutako gaiak oinarritu hartuta bertsolari bik abestuko dute.

Gaiei dagokionez, **Irati Diez Virto** biologoa eta [Zientzia Kaierako](#) kolaboratzaileak azkenaldian gertatu diren itsasontzien aurkako orken erasoen inguruan hitz egingo du "Adimen artifiziala, bai zera... orken iraultza dator!" hitzaldian. **Mikel Santesteban Insausti** hizkuntzalari eta UPV/EHUko Ikertzaile Doktore Iraunkorrek, berriz, "Berdin emozionatzen gaituzte gure hizkuntza guztiek?" hitzaldian hizkuntzen eta emozioen loturan sakonduko du. Azkenik, **Josu Lopez Gazpio** Kimika doktore, irakasle eta zientzia-dibulgatzaileak "Iragana aztertu, geroa ulertzeko" hitzaldian Johan Hultin patologoaren ikerketaz hitz egingo du. Urte luzez 1918ko gripea aztertu ondoren, 2002an gizateriak pandemia bat jasango zuela esan zuen ikertzailea, hain zuzen ere.

Hiru gai horiei **Miren Amurizak** eta **Andoni Egañak** jarriko dizkiete bertsoak **Rike Amonarrizek** saioa gidatu eta, lehiaketa baten bitartez, bertaratutakoen jakinduria neurtzen duen bitartean. Bertsozientziaren edizio berria **abenduaren batean, 18:30ean**, egingo da **UPV/EHUko Bizkaia Aretoan**. Sarrera librea izango da edukiera bete arte.

Bertsozientzia: jakinduriek mundue erreko dau

Eguna: Abenduak 1

Ordua: 18:30

Lekua: Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Hizlariak:

Irati Diez Virto: Biologian graduatua da eta [Biodibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioa Masterra](#) egin zuen biodibertsitatean espezializatzeko. Arlo horretan murgildu da, besteak beste, [AZTIn](#), [Doñanako Estazio Biologikoan](#) eta [Plentziako Itsas Estazioan](#) lan eginez. Horrez gain, zientzia dibulgazioan dihardu UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren Zientzia Kaiera blogean artikulua idatziz.

Mikel Santesteban Insausti: Euskal Filologian lizentziatua eta "Zientzia Kognitiboa eta Hizkuntza" programan doktoratua, [Universitat de Barcelonan](#). Bere doktorego-tesian elebidunek euren bi hizkuntzen aktibazioa eta hizkuntza aukeraketaren prozesua ikertu zituen. Egun, UPV/EHUko Ikertzaile Doktore Iraunkorra da, [Gogo Elebiduna Ikertaldeko](#) kidea eta [Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Esperimentala Masterraren](#) arduraduna.

Josu Lopez Gazpio: Kimikan lizentziatua eta doktorea, gaur egun irakaslea eta zientzia-dibulgatzailea da. Besteak beste, [Udako Euskal Unibertsitateko irakasleen prestakuntzarako masterreko](#) irakaslea da eta master bereko Natur Zientziak eta Matematika espezialitatea koordinatzen du.

El conocimiento y la bertsolaritza se volverán a unir dentro de la Semana del Euskara

El uno de diciembre, dentro de la programación de la Semana del Euskara, se realizará una nueva edición de Bertsozientzia en el Bizkaia Aretoa de la UPV/EHU.

Miren Amuriza y Andoni Egaña pondrán bertsos a los temas desarrollados por los y las investigadoras Irati Diez Virto, Mikel Santesteban Insausti y Josu López Gazpio.

Bilbao, a 20 de noviembre de 2023. Los ataques contra barcos protagonizados por orcas, el patólogo que en 2002 advirtió sobre el riesgo de una pandemia o la relación entre el idioma y las emociones serán algunos de los temas de la nueva edición de Bertsozientzia, que tendrá lugar dentro de la Semana del Euskara.

De esta manera, y bajo el título *"Jakinduriek mundua erreko dau"*, el conocimiento y la bertsolaritza vuelven a encontrarse sobre el escenario en una iniciativa organizada por la [Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU](#). Una cita en la que, una vez más, dos bertsolaris cantarán partiendo de las breves charlas ofrecidas por tres investigadores.

La bióloga y colaboradora de [Zientzia Kaiera](#) **Irati Diez Virto** hablará de los ataques de orcas contra barcos que se han producido durante los últimos meses en su charla *"Adimen artifiziala, bai zera... orken iraultza dator!"*. Por su parte, el lingüista y doctor investigador permanente de la UPV/EHU **Mikel Santesteban Insausti** profundizará en su intervención *"Berdin emozionatzen gaituzte gure hizkuntza guztiek?"* en la relación entre los idiomas y las emociones. Por último, el doctor en Química, profesor y divulgador científico **Josu López Gazpio** hablará del patólogo Johan Hultin en la charla *"Iragana aztertu, geroa ulertzeko"*. Una intervención en la que recordará cómo, tras investigar la gripe de 1918, en el año 2002 advirtió del riesgo de una nueva pandemia.

Todas esas intervenciones irán acompañadas por los bertsos de **Miren Amuriza y Andoni Egaña** en una cita guiada por **Kike Amonarriz**, quien también pondrá a prueba el conocimiento adquirido por el público asistente con un particular concurso.

Esta nueva edición tendrá lugar el **uno de diciembre, a las 18:30, en Bizkaia Aretoa de la UPV/EHU**. La entrada será libre hasta llenar aforo.

Bertsozientzia: jakinduriek mundue erreko dau

Día: 1 de diciembre, viernes

Hora: 18:30

Lugar: Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Ponentes

Irati Diez Virto: Graduada en Biología, realizó el máster de [Biodiversidad, Funcionamiento y Gestión de los Ecosistemas de la UPV/EHU](#) para especializarse en biodiversidad. Un ámbito en el que ha profundizado trabajando en [AZTI](#), la [Estación Biológica de Doñana](#) y la [Estación Marítima de Plentzia](#). Además, divulga ciencia con los artículos escritos en el blog Zientzia Kaiera de la Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU.

Mikel Santesteban Insausti: Licenciado en Filología Vasca y doctor en el programa Ciencia Cognitiva e Idioma por la [Universitat de Barcelona](#). En su tesis doctoral analizó la activación y elección del idioma en las personas bilingües. A día de hoy es Doctor Investigador Permanente en la UPV/EHU, es miembro del Grupo de Investigación [La Mente Bilingüe](#) y es el responsable del [Máster en Lingüística Teórica y Experimental](#).

Josu Lopez Gazpio: Licenciado y doctor en Química. A día de hoy es profesor universitario en la UPV/EHU y divulgador científico. Entre otras cosas, es profesor en el [Máster de Formación para el Profesorado](#) de la UEU, donde coordina la especialidad de Ciencias Naturales y Matemáticas.